Istripu gutxiago izateko, ondo egongo zen
polikiago ibiltzea.

*Istripu gutxiago izateko, ondo egongo zen polikiago ibiltzea.

- Istripu gutxiago izateko, hobe *litzateke* polikiago ibiltzea.
- Istripu gutxiago izateko, ona *litzateke* polikiago ibiltzea.
- Istripu gutxiago izateko, *ondo legoke* polikiago ibiltzea.

# Baldintza irrealearen ondorioa adierazteko erabiltzen da forma hori, baina IRAGANALDIAN bakarrik:

- Abisatu (izan) balidate, joango nintzen bilerara.

# Orainean edo geroan gauzatzekoak diren gertaerei buruzko baldintza irreala sortzeko:

- Abisatuko balidate, *joango nintzateke* bilerara.
- Hemen balego, merezi bezala *erantzungo nioke*.

Baina ez:

- *Abisatuko balidate, joango nintzen bilerara.
- *Hemen balego, merezi bezala erantzungo nion.

- Ezkerrak hobe ***luke*** baturik joatea hurrengo hauteskundeetan.
    - *Ona ***izango zen*** ezkerrarentzat hurrengo hauteskundeetan baturik joatea.

- Eremu horretan eguzki-panelak ezarriz gero, etengabe ***lortuko litzateke*** eguzki-energia.
    - *Eremu horretan eguzki-panelak ezarriz gero, etengabe ***lortuko zen*** eguzki-energia.

- Egokia (***izango***) ***litzateke*** zuzeneko publizitatea erabiltzea.
  - *Egokia ***izango zen*** zuzeneko publizitatea erabiltzea.
- ***Hobe luke*** ile-zaku ergel handi horrek bakean utziko balu!
  - * ***Hobe zuen*** ile-zaku ergel handi horrek bakean utziko balu!

- Inflazioak behera eginez gero, ondo ***legoke*** diru-politika lasaitzea.
  - *Inflazioak behera eginez gero, egokia ***egongo zen*** diru-politika lasaitzea.
- Guztiz zentzuzkoa (***izango***) ***litzateke*** botere publikoek giza kapitalaren formaziorako diru-laguntzak ematea.
  - *Guztiz zentzuzkoa ***izango zen*** botere publikoek giza kapitalaren formaziorako diru-laguntzak ematea.